

MONUMENTUAREN ERAISTEARI BURUZKO ADIERAZPENEA NAFARROAK GURUTZADAN ERORITAKO BERE HILEI - ERORIEN MONUMENTUA

Honako "Nafarroak Gurutzadan eroritako bere hilei - Erorien Monumentua" Monumentuaren eralsteari buruzko Adierazpena sinatu dugun pertsonak, alpatu adierazpenaren ezabapena hasteko jardun egoki eta beharrezkoak berehala ekiteko eskaera luzatzen diegu Erakunde publiko erantzulei –Iruñeko Udala, Nafarroako Parlamentua eta Nafarroako gobernu-".

Gure eskaera honako arrazoletan oinarritzen da:

DEMOKRATIKOAK

Nola haiek piztutako sarraski gerra bitartean hala ondorengo Frankoren diktaduran burututako genozidioaren eta altxamendu armatu basatiaren bi buruzagi eta zuzendari nagusienetakoren omenen egindako hileta-panteoi erraldoi gisa diseinatu eta jaso zuen faxismoak, martiri bilakaturako Nafarroa haien kausaren alde monopolizatzeke. Nafarroan ez zen gerra frontetik izan, hala ere, milaka herritar odol hotzean izan ziren erailiak, ondasunak ostu zituzten, haien emazte eta senideak umiliatu eta harnakadetan zehar ikara eta isiltasunaz josi zuten herria. Monumentu honek lazgarrikertea haiek babestu zituzten ideologiak laudatu eta gorensten ditu, baita gizateriaren aurkako krimenen apologia ere, eta nola edo hala inposatutako pentsamendu bakarraren ikur da.

Demokrazia batek ez zukeen sekula eraldiko eta demokrazia batek ez luke zutik mantendu behariko, ez behintzat askatasuna defendatu nahi badu, ezta desberdin pentsatzen duenarekiko errespetu jokatzeari helburu duen gizarte anitz baten elkarbizitzaren oinarri diren balore demokratikoak iraitzasi eta transmititu nahi baditu ere.

Ez dago ideia guztiak errespetua eskatzerik monumentua zutik mantentzeko, izan ere, jaso zutenek euren burua elkarbizitzatik kanpo uztea erabaki zuten eta transmititzen dituzten ideia faxistek ez dute tokirik izan behar demokrazia batean.



Monumentua zutik mantentzeak neofaxistak erakartzeko gune biliaka dezake berare, Europako beste hainbat tokitan gertatzen ari den bezala.

Ez da, Iruñeko kartzela zaharra edo Ezkabako presondegiaren antzera, matxinatuen, karlisten eta falangisten biktimek jasandako oinazea, umiliazioa, tortura eta erailketa gordeko dituen memoria-rako gunea, baizik eta garalileen memoria goretzi eta gorazarre egiteko altxatutako tokia, eta baita eraildakoak umiliatu eta haien memoria ukatzekoa ere.

Kriptan askatasunaren kontrako gurutzada haren gorespen mezak egiten dira egun.

LEGALAK

Memoria Historikoaren 52/2007 Legea urratzen du. Honek hainbat neurri ezari zituen "Zioen azalpe-nean", "Gerra Zibilaren edo Diktaduraren oinamenezko ikur eta monumentuekin zerikusia duten zenbait neurri ezari dira, altxamendu militarren, Gerra Zibilaren eta Diktaduraren gorespene sailhesteke asmoarekin, juste osoa dugulako herritarrek horretarako –hain zuzen ere ikurrak, liskarreak, irainerako edo bidegabekeitarako aitzakia izan beharrean, jendea elkartzeko baliagarri izan daitezken– eskubidea dutela", beraz, alpatutako gorespene egiten duten elementu guztiak nahitaez kendu behariko dira (15 eta 16. art.). Kontuan hartzekoa da monumentua bere osotasunean, altxamendu militarri, Gerra Zibilari eta Frankoren diktadurari gorazarre egiteko ikurtzat hartu beharra dagoela.

Nafarroako Memoria Historikoaren Legea urratzen du eta Nafarroako Gobernuak 2016an onartutako Ikurren Erroldan agertzen da, ezabatzea edota kentzea gomendatuta.

ARKITEKTONIKOAK ETA URBANISTIKOAK

Inoiz izan den Frankismoari egindako hiri-monumenturik handiena da eta hiri baten erdigunean mantentzen den bakarra, Gazteluko Plazak berak baino askoz eremu handiagoa hartzen baitu. Ez da erabilera eman dakioken eraikina, mausoleo bat baizik, hirifarrek erabili lezaketen eremu erraldoia bahitzen duen panteoi erraldoia harmailadiz eta urmael batez inguratutakoa.

Hileta-monumentu bezala baino ez zedin erabili diseinatu zuten, horretarako erailki baitzuten eta ez beste ezertarako. Barruan ez dago bizitzarik eta inguruaren duen berealdiko presentziak erabat baldintzatzen du inguru horren erabilera.

Kupularentzat gordetako 800m²ko eremu libre eskasa ez da aski bertan inolako jarduerarik egiteko.

Monumentu hau garbiki faxista eta askatasunaren eta demokraziaren erabat aurkako da; beraz, honen eraspene agindu moral eta legala bermatzen duten azaldutako arazo guztiak direla eta, beharago sinatzen dugunok erabaki horren arduradun diren Institutzioei arazo horiek onartzeko eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Umibertsalarekin bat, ahalik eta las-terren jarduteko eskatzen diegu, Aldarrikapen honek heriotza eta ikara irudikatzen dituen monumentu batek gizarte demokratiko batean ez duela lekurik jakinarazten baittigu.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 23an

